

HIZKUNTZA: ASTRONAUTA EUSKALDUN BATEN

EGUNEROKOA

1. Egunero gertatzen diren gauzei eta sentimenduei buruz idazten dugun liburuxkari EGUNEROKOA deitzen diogu. Hemen LEOPOLD EIHARTS astronauta miarritzarraren egunerokotik ateratako hiru pasarte dauzkagu. Gai izango al zinateke ezkerrean ditugun datak pasarte bakoitzari lotzeko, egunerokoa ordenatuz?

Martxoaren
23 a

Espazioan pasatzen dudan bigarren eguna da. Egokitzeke eguna izan dela esan dezaket: hemengo lagunekin lehen harremanak izan, geltoki espaziala eta haren funtzionamendua ezagutu, aginduak betetzen hasi...

Martxoaren
24 a

Gaur nire urtebetetze eguna izan da eta inoiz imajinatuko ez nukeen oparia izan dut: MIR geltoki espazialera iritsi naiz! Bidaia zoragarria izan da, baina Lurretik aireratzeko kohetea indarra hartzen hasi denean, bihotza lehertuko zitzaidala uste nuen. Egun hau ez dut nire bizitza guztian ahaztuko!

Martxoaren
25 a

Oso ondo egin dut lo. Umore onez esnatu naiz, eta, ariketa fisikoak egin ostean, gaurko lanak betetzen hasi naiz. Leihotik begiratu, eta han behean mundua ikusten dudak bakoitzean, nire Euskal Herri maiteaz gogoratu eta izugarritzko emozioa sentitu dut: "Oi ama Eskual Herri goxua, zutandik urrun triste bania..."

2. Unibertsoaren gaia oinarri hartuta, hona hemen bertso bat. Oinak falta ditu. Aukeratu egokiak eta dagokien zenbakia jarri. Ohartu behar dituzunak baino gehiago daudela. Egokiak ez diren hitzei 0 (zero) zenbakia jarri behar diezu ariketa ondo burutzeko.

Eguzkia da, guretzat behintzat,
izarrik **1** ,
hainbat planetak etenik gabe
jira-biratzen **2** ,
eta Lurraren sateliteak
merezi du **3** ,
Ilargiraino joatea da
gure amets **4** ,
argitu asmoz estralurtarren ★
inguruan **5** .

handiena

gertukoena

itsasoa

aipamena

ikatza

dutena

dagoena

bizikleta

gosaria

patxada

3. Aurki itzazu letra-zopa honetan Eguzki sistemako zortzi planeten izenak. Hitza topatzen duzunean KLIK egin hizki bakoitzean, hau da, LURRA topatzen baduzu, L, U, R, R, eta A dauden laukiak KLIKATU beharko dituzu.

